


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Abuztuan, laugarren hilabetez jarraian, igoera txiki bat erregistratu da Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruan, eta **6.880 langabe zenbatu dira (2.963 gizon eta 3.917 emakume)**:

- Langabezia **% 2,9 igo da uztailaren aldean.**
- Langabezia **% 3,8 igo da aurreko urteko abuztuaren aldean.**

Abuztuan, bai gizon langabeen kopurua bai emakume langabeena hazi egin dira, baina erritmo bizkorragoan emakumeen kasuan (% 1.2 eta % 4,3, hurrenez hurren).

Martxotik aurrera hilabetero gertatu den bezala (maiatzean izan ezik), abuztuan ere, aurreko urteko hilabete beraren baino langabe gehiago zenbatu dira Donostian.

2023ko abuztuarekin alderatuta, langabeen kopurua % 3,8 igo da. Gizon zein emakume langabeek gora egin duten arren, langabeziaren hazkunde hori gizonetzkoen taldean kontzentratzen da batez ere (+%4,7 gizonen artean eta +%3.1 emakumeen artean).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,7	8,4	10,1
Gizonen langabezia indizea	6,9	6,9	8,4
Emakumeen langabezia indizea	8,4	9,8	11,8
Genero arrakala	1,5	3,0	3,4

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,7koa da: 6,9 gizonetan, 8,4 emakumeetan. Bestalde, genero-arrakala 1,5 puntu portzentualekoa da.

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	8,4	-1,8
Donostia	7,7	-2,4
Bizkaia	11,1	0,9
Bilbo	12,7	2,6
Araba	10,8	0,7
Gasteiz	11,1	1,0

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.603	%100	%1,2
Gizonezkoak	2.936	%44	%0,4
Emakumezkoak	3.667	%56	%1,8
Gipuzkoa	28206	%0,3	%2,2
EAE	106.367	-%0,1	%0,9

Gipuzkoan langabeen kopurua + % 4,6 igo da. Bestalde, EAEn langabeen kopurua + % 3.1 igo da.

Era berean, nabarmentzekoa da Donostiako langabeen urte arteko hazkundea EAEkoa (+%3,8) baino (+%2,5) handiagoa izan dela, baina Gipuzkoakoa (+%4,0) baino txikiagoa.

Langabezia tasa EUSTATen arabera (2024 2. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,4 ekainean), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren araberrako estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2023ko azken hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburuak.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko hiaarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,9	5,2	5,6
Donostia	7,1	5,6	6,4
Bizkaia	7,8	9,5	8,6
Bilbo	7,9	11,0	9,4
Araba	8,5	6,7	7,7
Gasteiz	9,9	5,7	8,0
EAE	7,3	7,6	7,5



Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,9	53,9	57,3
Donostia	62,2	54,6	58,2
Bizkaia	60,7	51,3	55,8
Bilbo	62,8	50,4	56,2
Araba	63,6	52,6	57,9
Gasteiz	64,1	51,5	57,5
EAE	61,2	52,3	56,6

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2024ko biqarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,3	51,1	54,1
Donostia	57,8	51,5	54,5
Bizkaia	56,0	56,4	51,0
Bilbo	57,8	44,9	50,9
Araba	58,2	49,1	53,5
Gasteiz	57,7	48,6	53,0
EAE	56,8	48,3	52,4

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, abuztuan:

- 55 urtetik gorako 2.323 langabe erregistratu dira Lanbiden (-9, uztailaren alderan).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.606 langabe erregistratu dira Lanbiden (+22, uztailaren alderan).
- 35-44 urte bitarteko 1.273 langabe erregistratu dira Lanbiden (+54, uztailaren alderan).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.227 langabetu erregistratu dira Lanbiden (+116, uztailaren alderan).
- 25 urtetik beherako 451 langabe erregistratu dira Lanbiden (+13 uztailaren alderan).

Langabeen kopuruak pixka bat gora egin du adin-tarte guztietan, 55 urtetik gorakoenean izan ezik.

Egia bada ere 55 urtetik gorakoak direla langabezian pisu handiena duten kolektiboak, horiek ere garrantzi handiagoa dute biztanleria-mailan.

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%56,3	%43,7	-12,6
25 eta 34 urte bitartekoak	%44,3	%55,7	11,5
35 eta 44 urte bitartekoak	%37,3	%62,7	25,4
45 eta 54 urte bitartekoak	%43,3	%56,7	13,3
55 urtetik gorakoak	%42,8	%57,2	14,3

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREN KRONIFIKAZIOA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datuek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Kronifikazio horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumeei eta 55 urtetik gorako emakumeei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.


35-45 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 25,4 puntukoa da abuztuan.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (LH eta unibertsitatea) nabarmen gairatzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorakoen adin-tarteetan) gizonak baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeen enplegua lortzea zailtzen duten oztopo eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeen sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ehuneko 20 puntu handiagoa da.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 42,8ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 21,2k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Unibertsitate-ikasketak dituzten langabeen ehunekoak gora egin badu ere aurreko hilabeteekin alderatuta, fenomeno hori gainerako lurraldeekin partekatzen da, eta lotura zuzena du unibertsitate-zikloak ixtearekin eta lizentziatu berrien aktibazioarekin.

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela.**


	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%57,1	%52,7	%53,7
35 urtetik beherakoak	%24,4	%26,9	%25,6
Iraupen luzeko langabezia	%43,8	%43,3	%48,0
Atzeritarrak	%13,5	%18,3	%17,5
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%16,8	%17,3	%16,2
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%21,2	%15,7	%14,4
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%42,8	%50,2	%53,2

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:

- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu, baina Gipuzkoak baino gehiago.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 16,8), EAEn erregistratutakoa baino handiagoa da (% 16,2), baina Gipuzkoakoa baino txikiagoa (% 17,3)..*




(20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren garrantzi demografiko bera biztanleria osoarekiko 3 lurraldeetan: % 58.)

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzaileek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Abuztuan zehar **emakumezkoen kontratazioak gizonetzkoena gainditu du. Hala eta guztiz ere, emakume langabeen hazkundea handiagoa izan da gizon langabeena baino.**

. Abuztuan, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialeko kontratuak dira, eta gizonen sinatutako kontratuen % 32 baino ez dira mota horretako kontratuak.

Azkenik, abuztuan, **kontratatutako pertsona guztien % 11 emakume atzerritarrak ziren** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 dira).

Abuztuan 6.935 kontratu sinatu dira, hau da, uztailen baino % 19,7 gutxiago (uztailen baino 1.704 kontratu gutxiago, 2023ko abuztuan baino 223 kontratu gutxiago).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.094	%44,6	3.841	%55,4	6.935
Aldi baterakoak	2.414	%43,7	3.115	%56,3	5.529
Mugagabeak	680	%48,4	726	%51,6	1.406
Lanaldi partziala	988	%34,4	1.881	%65,6	2.869
Lanaldi osoa	2.106	%51,8	1.960	%48,2	4.066

Kontratu horiekin 5.256 pertsona kontratatu dira, hau da, uztailen baino % 21 gutxiago (1.390 pertsona gutxiago kontratatu dira).

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,32 kontratu sinatu ditu.


Nabarmentzekoa da, proportzioan, kontratatutako pertsonen kopurua gehiago jaitsi dela sinatutako kontratuen kopurua baino.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.356	%44,8	2.900	%55,2	5.256
Sinatutako kontratuen ratioa	1,3		1,3		1,3
24 urtetik beherakoak	813	%46,3	944	%53,7	1.757
25 eta 34 urte bitartekoak	579	%45,9	683	%54,1	1.262
35 eta 44 urte bitartekoak	441	%47,7	483	%52,3	924
45 eta 54 urte bitartekoak	332	%39,9	501	%60,1	833
54 urtetik gorakoak	191	%39,8	289	%60,2	480
Atzerritarrak	508	%46,1	595	%53,9	1.103

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino. Batez ere 45 urtetik gorakoan adin-tartean.
- Abuztuan sinatutako **kontratuen % 20,3 mugagabeak ziren** (% 26 ekainean eta % 25,9 uztailen).
- Abuztuan sinatutako kontratuen **% 41,4 lanaldi murritzukoak dira** (% 43.1 uztailen). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 66).
- Kontratuen **% 57 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.**
- Kontratuen **% 25 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 60 emakumeak dira.**
- Abuztuan kontratatutako pertsonen **% 21 atzerritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzerritar jatorriko pertsonen % 54 emakumeak ziren.**

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua txikitu egin da eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 18.8** sinatu ditu (% 22,9 uztailen).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 34.4** sinatzen ditu (uztailen % 36.4).
- Sektore horretan sinatu dira kontratu mugagabe gehien, **484 kontratu mugagabe** (815 kontratu uztailen).
- Kontratazio mugagabeak berriro ere behera egin du sektorean. **Ostalaritzan sinatutako kontratuak % 37 mugagabeak dira** (% 41 uztailen).
- Kontratazioaren **partzialtasunak ehuneko 7 puntu egin du gora uztailarekin** alderatuta. **Ostalaritzan sinatutako kontratuak % 48 lanaldi partzialekoak dira** (% 41 uztailen).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuak % 13.4 sinatu ditu** (% 12.9 uztailen).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 15.1** (uztailen % 14.2) eta **lanaldi partzialeko kontratuak % 21,1** (uztailen % 20,1) sinatu ditu.
- Abuztuan zehar **merkataritzan sinatutako kontratuak % 23 mugagabeak dira** (% 29 uztailen).
- Lanaldi partzialeko kontratazioak % 2 egin du behera aurreko hilaren aldean.** **Merkataritzan erregistratutako kontratuak % 65 lanaldi partzialekoak dira** (% 67 uztailen).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	6 (%0,4)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	46 (%3,3)	%84,8	%15,2
Industria	23 (%1,6)	%65,2	%34,8
ostalaritza	484 (%34,4)	%54,1	%45,9
Merkataritza	213 (%15,1)	%44,1	%55,9
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	46 (%3,3)	%34,8	%65,2
Osasuna eta gizarte zerb.	61 (%4,3)	%19,7	%80,3
SEIC - ENPRESAK			
177 (%12,6)	%51,4	%48,6	
Zerbitzu operatiboak	350 (%24,9)	%41,4	%58,6

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (%0,0)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	10 (%0,3)	%40,0	%60,0
Industria	46 (%1,6)	%71,7	%28,3
ostalaritza	628 (%21,9)	%43,3	%56,7
Merkataritza	605 (%21,1)	%29,3	%70,7
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	63 (%2,2)	%23,8	%76,2
Osasuna eta gizarte zerb.	513 (%17,9)	%14,2	%85,8
SEIC - ENPRESAK			
157 (%5,5)	%44,6	%55,4	
Zerbitzu operatiboak	846 (%29,5)	%40,5	%59,5

Industriako eta hezkuntzako kontratazioak behera egin du aurreko hilabeteen aldean. Hori ikasturtearen itxierak eta sektore horietan kontratu finko etenek duten pisu handiak eragin dute.

Bestalde, behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,3baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Industria eta osasun – gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuak % 91 eta % 95aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, zerbitzu operatiboetan eta osasun sektorean. Azken horretan, lanaldi partzialeko kontratuak % 86 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua da).

Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak eskaintutako kontratazioan (% 0), industrian (% 24) eta eraikuntzan (% 14). Hala ere, hezkuntzako kontratuak % 75 eta osasun-sektoreko kontratuak % 75 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonei zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduera intentsiboetako eta abarretako jarduerak).


SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (388 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (24 kontr.), higiezin-jarduerak (9 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.113 kontr.), administrazio publikoa (16 kontr.), beste zerbitzu batzuk (98 kontr.) eta etxeetako jarduerak (135 kontr.).

DSBEaren hartzaileak (uztaila)

Dokumentu hau egin den egunean, Eustatek ez ditu argitaratu DSBEa jasotzen duten udalerriei buruzko datuak. Erreferentzia gisa, hurrengo ataletan uztaileko datuak erakusten dira.

Auzoen arabera banaketari dagokionez, eskuragarri dauden azken datuak ekainekoak dira.

Uztailan 3.619 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian (ekainean baino 49 hartzaile gutxiago)



Nabarmendu daiteke:

- Maiatzean DSBEa jaso zuten pertsonen % 59,3 emakumeak dira.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 47,4 ziren ekaian.
- DSBEa jasotzen dutenen % 22,9k lanaren osagarri gisa jaso zuten maiatzean.
- Maiatzean Donostian DSBE jasotzen zutenen % 28,5k goi-mailako ikasketak zituen (LH edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera (Ekaina)



(Uztaileko datuak)

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,3	%0,7	%0,4
20 - 24 urte	%2,5	%2,5	%2,7
25 - 29 urte	%4,5	%5,4	%5,2
30 - 34 urte	%7,2	%7,9	%7,7
35 - 39 urte	%8,4	%9,9	%9,5
40 - 44 urte	%9,4	%11,2	%11,2
45 - 49 urte	%9,9	%11,6	%10,8
50 - 54 urte	%10,6	%11,2	%10,8
55 urtetik gora	%47,4	%39,6	%41,7
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,4	%61,5	%59,0
Batxilergoa	%9,4	%6,9	%7,2
Lanbide Heziketa	%21,7	%17,8	%20,0
Unibertsitatea	%6,8	%4,4	%4,6
Informaziorik gabe	%8,7	%9,3	%9,2
Lanaren osagarritasuna	%22,9	%21,0	%22,2
Oinarritzko DSBE modalitatea	%77,1	%79,0	%77,8
Gizonak	%0,3	%0,7	%0,4
Emakumeak	%4,5	%5,4	%5,2

(Ekaineko datuak)

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzekide guztiekiko %
Aiete	14.066	148	%1,1
Altza	19.517	598	%3,1
Amara Berri	29.377	438	%1,5
Antiguo	13.754	139	%1,0
Añorga	2.448	29	%1,2
Ategorrieta-Ulia	3.874	74	%1,9
Centro	21.352	375	%1,8
Egia	14.208	330	%2,3
Gros	17.563	272	%1,5
Ibaeta	9.721	128	%1,3
Igeldo	1.040	7	%0,7
Intxaurrondo	15.010	553	%3,7
Loiola	6.073	180	%3,0
Martutene	2.592	84	%3,2
Miracruz-Bidebieta	8.565	285	%3,3
Miramón-Zorroaga	2.302	21	%0,9
Zubieta	-	-	-